

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Azaroaren 6tik 19ra trafikoaren erretentzioak aurreikusten dira Iruñeko ingurabideko Taxoare eta Badostain arteko zatian, kontserbazio-lanak direla-eta

*Norabide bakoitzean errei bat itxiko da lanaldian zehar; beraz, puntako orduetan ordezkotako bideetatik joatea gomendatzen da*

Ostirala, 2018.eko azaroak 2

Asteartean, mantentze-lanak egiten hasiko dira Iruñeko ingurabidean, Taxoare eta Badostain arteko zatian, eta ibilgailuen zirkulazioan eragina izango du bi asteke denboraldian. Jarduera ezberdinak medio, trafikoa norabide bakoitzeko errei batera erregulatuko da; ondorioz, ordezkotako ibilbideak egitea gomendatzen da, bereziki puntako orduetan.

Herri Lanen Kontserbazio Zerbitzuak lanetarako hasiera batean aurreikusitako [egutegia eta ordutegia](#) betetzeko, baldintza meteorologikoak hartuko dira kontuan. Lanak eguraldia dela-eta behar bezala egin ezin badira, eten, eta, ondorioz, atzeratu egingo dira.

Obrek ibilgailuen zirkulazioan eragina izango dute Iruñeko ingurabideko 1+200 (Taxoare) eta 4+600 (Badostain) puntu kilometrikoetan. Zehazki, galtzada bakoitzeko errei bakarria jarriko da. Lanaldi bakoitzean bi erreietan txandaka egingo da lan (eskuina eta ezkerre) norabide bakoitzeko. Eskuineko erreia egitean, horren barneko irteerak itxi egingo dira trafikoarentzat, eta norabidez aldatzeko hurrengo lotura edo elkargunea erabiliko da.

Lanak 10 zatitan egingo dira, eta, batez ere, bide-zorua indartuko da, zahartuta eta ebakiekin aurkitzeagatik. 5 zentimetroko lodierako materialaren geruza berria emateaz gain, bideko markak, ikurrak eta zebra-bideak berriz margotuko dira.

Besteak beste, lan hauek aurreikusi dira: galtzadan zehar bitumosa nahasketako 8.900 tona hedatzea, eta alboko eta erdiko marken 19.000 metro lineal, zebra-bideen 200 metro karratu eta zoladurako gezien eta ikurren 150 metro karratu berriz margotzea.